



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abaildu jausi, erori	Negar egiteari utzi zionean berebiziko nekea abaildu zitzaion gainera, eta buruz behera hartu zuen lo...	43
agondu altxatu, zutitu	Igorrek begiak ireki zituen; arreba begira-begira zeukan. Agondu eta bi eskuekin besoetatik heldu zion.	76
ahuspez ahoz behera	Gelako atea itxi, ohe gainean ahuspez etzan, eta negar egin zuen.	34
aienatu uxatu, aldendu	Irene airean irten zen eskuineko aldetik, zerurantz, ilargirantz, izarretarantz, eta hantxe aienatu zen.	76
aiurri izaera, nortasuna	Ama joan zenetik, ordea, ikasketetan murgildu zen, eta aiurria baretu egin zitzaion, eztiago zegoen.	33
alaena halakoa!	—Hik segi horrela, txoro alaena !	53
alajaina arranopola, arraioa	Marinarenean, amona zenaren lepokoa agertu zen, benetako perlaz osatua, eta diru sorta bat, gomaz lotua: hamar mila euro alajaina .	10
alargun geratu senar edo emazte gabe geratu	...gerra ondorengo soldadutza-urteez, alargun geratu zenekoaz...	52
alproja ganorabako alferra	Berebiziko purrustada hasi zuen Marinak; zeuzkaten arazoekin ez ote zuten nahikoa, alproja hutsa bihurtu nahi al zuen.	55
amorraturik haserre bizian	Marinak amorraturik , telebista itzali zuen.	55
anabasa nahaspila, nahastea	Lokal hura ez zekiten taberna ote zen, edo biltegi bat, kartoiz eta botilaz josia, edo zer, han zegoen anabasarekin ez baitzen antzematen.	8
antxumatu besoak bata best gain gurutzatu	Marinak haserre jarraitzen zuen; bazkaria prestaturik, egongelan sartu, besoak antxumatu , eta gauean hasitako errietari ekin zion berriro.□	55
arima herratu mamua, espektroa	Une hartan, Tripazorro emeki-emeki mototik jaitsi, eta aldendu egin zen, arima herratu baten pare.	21
arketa estolda	...agertu ziren furgoneta batekin. Arketa baten parean gelditu ziren.	94
arrantza oihua, garrasia	Igorrek asto- arrantza batez erantzun zion hari ere.	63
astakirten artaburua, astapotroa	...lanbide horretan astakirten ugari baitzebilten.	52
atso adineko emakumea (<i>vieja</i>)	Txino: uste diat Karretas hire atsoarekin etzan nahian dabilela.	70
atximur egin imurtxika, piltxika egin	Gerrian, Tripazorroren esku batek atximur egin zion.	20
azpil erretilua, bandeja	Bazkariaren bila mahaiko arduraduna jaikitzen zen, eta hark ekartzen zuen eltzea edo azpila , mahaiko guztientzat.	30
bailara eskualdea	...hantxe biltzen baitziren ilunabarrero bailarako porrozale eta bestelakozale guztiak, soto baten aurrean, berebiziko keak ateraz.	8
baldar huts dorpea, trakets-traketsa	Beste bi horiek baldar hutsak dituk; ez nauk fidatzen horietaz negozio garrantzitsuetarako.	82
bare-bare lasai-lasai	...eta bihotzeko taupadak entzuten zizkion; taupada haiek entzunda, bare-bare geratzen zen.	75
barre-karkara barre algara	...gela osoa harri geratu zen, eta gero barre-karkara lehertu zen.	28
bart joan den egunean	...itxi ohi zuen krisketaz; baina, bart , ahaztu.	54
bekoki kopeta	...Ireneren irudia behin eta berriz agertzen zitzaion bekokian ...	40




bere kabutan bere barrurako, berekiko	Gustatu zaio, gustatu zaio, egiten zuen bere kabutan Igorrek, arrebaren irribarretxoari begira.	15
berebiziko egundokoa	Zer da hau, ordea! –atera zuen berebiziko orroa.	31
beta abagunea. egokiera	Inoiz edo behin, hitza ateratzeko aukera edo beta hartzen zuenean, ahots marrantatsua irteten zitzaion, eztarrian trabaren bat baleuka bezala...	7
betertz begi-ertza	Irenek haietako bati heldu zion; Txino deitzen zioten, betertzak estuak zituelako.	28
betzulo begien lekua (<i>órbita</i>)	Begiak betzuloetatik ateratzeko zorian zituen amorruz dizdizka.	36
bigun apatz, beratz	Berak horma jo, baina horma bigun zegoen.	76
bihurritu doblatu	...gainerako arropa jantzirik, haiek ondo bihurritu eta poltsikoan sartu zituen.	58
biradera manillarra	Gero biraderari heldu dio eta azeleragailuari eragin.	15
builaka oihuka, iskanbila sortuz	...bereziko suspentso pila ekartzen zituen, gauetan berandu itzultzen zen, gurasoei aurre egiten zien builaka .	51
burlaizez iseka edo trufa keinua	Gorrotoa nagusitu zitzaion, Txinoren, Arratoiaren eta Ireneren kontra; ezin zuen ezabatu kopetako ispilutik neskaren begirada hotza eta burlaizezkoa .□	84
burrumbaka astrapalan, zaratotsean	Musika topera jarrita, kale osoan burrumbaka .	61
burumakur goibel, lur jota	Marina, berez, neska irribarretsu eta atsegina zen; ez zen ohikoa ikustea, burumakur eta serio.	66
burusi manta	Ezintasun hartan, arrebaganako maitasuna sentitu zuen; burusi bat hartu, eta gainean jarri zion emeki.	76
burutuxe ia bukatua	Ezin zuen erabat kontrolatu joera hura, pentsatzen hasi aurretik, modu aski automatikoan, ekintza burutuxea izan ohi zuen.	30
destaina mespretxua, gutxiespena	Irenek hantxe jarraitzen zuen, Igorri destainaz begira.	83
diz-diz distiratsu	Begiak betzuloetatik ateratzeko zorian zituen amorruz dizdizka .	36
durdzarazi nahastuta sentiarazi	...sartu ziren zulo hartan; musikak kaskezurra durdzarazten zuen.	59
egurastu airea hartu (<i>despejatu</i>)	Balkoira irten behar izan zuen, egurastera . Gero lapikotik bertatik koilarakada batzuk hartu, ogi pusketa bat hozkatu, eta bere gelan sartu zen.	56
eltze lapikoa□	Bazkariaren bila mahaiko arduraduna jaikitzen zen, eta hark ekartzen zuen eltzea edo azpila, mahaiko guztientzat.	30
enbusteria engainua, gezurra	"Bazterrak engainatzeko erreminta ederra duk hori; badik enbusterialatik ", gogoratu zituen aitona zenaren hitzak.	12
errainu izpia, argi isla	...gero bere gelan argia itzalita ohe gainean etzan, eta eskuak lepo atzean gurutzatuta sabaiko errainuei begira geratu zen.	25
erreten kanala	Ireneri zirriak eragiten zizkion, batik bat ipurdiko erretenean .	47
erronka desafioa, apustua	Igorrek begirada eusten zion, erronka eginez.	53
etxekoneko eraikin berean, beste etxeko auz	Igorren etxekonekoa zen Tripazorro, Igor txikitandik babestua zen mutil gizenxka.	9
ezgauza ezinean (<i>incapaz</i>)	Igorri, halakoetan, asto-arrantza moduko bat irteten zitzaion eztarritik, ezer taxuzkorik esateko ezgauza .	17




ezin eraman ezin jasan, soportatu	... ezin zituen eraman aitak ispiluan uzten zituen hortzetako pastaren eta bizarra egiteko xaboiaren zipriztinak.	55
ezti gozoa, atsegina	...neskak irribarre ezti bat eskaintzen zion.	47
ezti egon maitagarri egon	Ama joan zenetik, ordea, ikasketetan murgildu zen, eta aiurria baretu egin zitzaion, eztiago zegoen.	33
freskatu freskagarria, edari hotza	... freskatu bat hartuko dugu Leitzaranen.	57
galarazi debekatu, eragotzi	— Jendaila horrekin ibiltzea galarazi behar zaio – esan zuen Emiliak.	66
galga balazta, freno	...derrapatu, eta berriro aldapa behera jaisten zen, trebezia handiz, galga estutu eta askatuz, bihurtune estuak zehaztasun matematikoz hartzen zituela.	5
giltzarrapo kandadua	Motoari ez zion giltzarraporik jarri.	43
gizenxka potolo samarra	Igorren etxekonekoa zen Tripazorro, Igor txikitandik babestua zen mutil gizenxka .	9
goitika botaka egiten	Eta barruan gehiago ezer ez zegoela uste zuelarik ere, goitika jarraitu zuen denbora luzez.	86
haizeberrituko erreformatu, beste aire bat eman	Bestela, kristalak harrika hautsi eta etxea haizeberrituko dinagu.	69
harri eta zur sor eta lor, txundituta	Marina harri eta zur geratu zen.	56
herrenka koxoka	Karretas herrenka urrundu zen, jautzizoka.	80
hika hitanoz hitz eginez (<i>tutear</i>)	Marina, hika , muturtuta. Igorrek asto-arrantza egin zion, eta amaieran hitz bat irten zitzaion...	53
hitzontzi berritsua, berbalapikoa	...txikia zenean bezala, hitzontzi hutsa izan baitzen besoaren gertatu aurretik.	77
hortzeria hortz-haginak (<i>dentadura</i>)	...baina berak bere hortzeria irribarretsua erakusten zuen erantzun gisa.	6
hozkirri fresko	Ilunabarreko freskuarekin, Irenek begiak malkortsu zeuzkan, motoan zetozela aurpegian jasandako haize-igurtzi hozkirriagatik .	20
iaioa trebea, antzetsua	Iaioa zen Tripazorro salerosketan eta jendea bereganatzen.	13
imintzio keinua	Marinak goitik behera kontatu zion gertatutako guztia, imintzio ugari eginez.	34
inarrosi astindu	Igorren barruan zerbait inarrosi zen, baina ez zuen ostikorik eman lurrean, besteetan bezala.	19
jendaila pertsona txarrak (<i>jentuza</i>)	— Jendaila horrekin ibiltzea galarazi behar zaio – esan zuen Emiliak.	66
kargu hartu gogor egitea (<i>reprender</i>)	Beti eramaten zituen lan guztiak txukun-txukun amaituta klasera, ez baitzuen nahi inola ere irasleak denen aurrean kargu hartzerik edo nabarmen uzterik.	17
karkaxa erruxa, eztarriko mukia (<i>flema</i>)	Ezerk baino lotsa handiagoa ematen zion hizkuntza karkaxatsu horretan mintzatzeak.	17
karrakatsu lakartua, kraskatua, kinkuna	...denak isil-isilik geratzen baitziren, hark zer esango bere ahots karrakatsuarekin .	7
karranpa kalanbrea, gihar uzurdura ming	Igorrek karranpa atzeko bat sentitu zuen bizkarrezurrean behera.	62
kask-kask kolpetxo (onomatopeia)	Igorrek leihoko kristalean kask-kask entzun eta kanabera baten muturra ikusi zuen	57




kaskezur burezurra (<i>craneo</i>)	...sartu ziren zulo hartan; musika kaskezurra durduzarazten zuen.	59
katagorri urtxintxa, katamixarra	Bizitza sator bat bezala bizi daiteke, edo katagorri bat bezala...	52
kemen adorea, ausardia	Gelara sartu, leihoa itxi, eta arropa kentzeko kemenik gabe etzan zen ohe gainean, ziplo.	27
kinki-kanka ekin eta ekin (?)	Marina sukaldean ari zen, kinki-kanka , ganoraz jatekoa prestatzen.	54
kirika egin zelatan egin, ikusmiratu	Kirika egin zuen begiratzulotik. Administratzailearekin hizketan hari zen aita.	78
kitzikatuta zirikatu, animatu (<i>estimular</i>)	Ireneren hitzek kitzikatuta , areago ausartu zen.	46
kokots bidarra, aurpegi beheko intengu	Kokotsarekin arnasaren larria sumatzen zion sorbaldan.	18
komeriak katramila, han bai hangoak	Gero, ordea, krisia hasi zenean, komeriak .	13
korridore pasiloa	...atea ireki eta korridorera begiratu zuen.	44
krisketa maratila, ireki-ixteko gailua	Igorrek atea kolpe batez itxi, krisketari eman, eta ohe gainean etzan zen, ahoz gora.	77
kuidadorik ez arazo gabe (<i>no problem</i>)	Tripa puska harekin, behetik gora irteten zela esaten zuen, ez zegoela kuidadorik .	6
larrubizi biluzik	Ez nauzu larrubizirik ikusi nahi, Igortxo maitea?	73
lerde adurra, listua	Haien aurrean Igorrek lanak izaten zituen zozomikote baten pare lerdea zeriola ez geratzeko begira-begira.	38
lirain lerdena, polit-polita	kalean behera, gerri lirainekin haizea laztanduz, ezin zion begirik kendu Igorrek.	58
litrona botilatzarra alkohol edariz betea	Txinok litrona bat atera zuen, eta denen artean edan zuten, muturretik.	0
lixiba (lejia)	Lana amaiturik, komuna garbitu zuen Igorrek. Aurrena pixa egin, gero lixiba bota eta erreazio kimikoari begira egon zen.	55
lizun-usain lizunsunda, bafada, kiratsa (<i>tufo</i>)	Jexuxek adierazitako puntuan bentosak itsatsi, tiratu, eta azulejoen artean koadro bar irteten hasi zen. Zabaldurik, barruko zulotik lizun-usaina zerion.	95
maingu besomotza	Gezurra zirudien Igorrek, hain gaztea izanik, ia mutiko bat, ezkerreko besoa erdi maingua , halako abileziaz gidatzea motoa.	6
maiz sarritan, usu	Maiz , ermita bateraino eramaten zituen aitona.	50
malkortsu negar malkoz beterik	Ilunabarreko freskuarekin, Irenek begiak malkortsu zeuzkan, motoan zetoze la aurpegian jasandako haize-igurtzi hozkirriagatik.	20
mantsoago astiroago	Igor mantsoago zihoan, motoa ez zuelako besteena bezain indartsua.	45
mari-purtzil mari-zikin, urdanga	Zu ibili zaitezke noski nahi duzunean, nahi duzun lekuan eta nahi duzun maripurtzilekin , ezta?	63
marmarka ahapera purrustaka, protestaka	Emakumeak marmarka itxi zuen leihoa.	69
marranta katarroa, erlastura	Ahotsaren marrantaren marrantaz, txatarreroak ez zion ezer ulertu.	11
mauka pagotxa, txolloa	Eta, gainera, berebiziko mauka : dirutza irabazten da.	74



memelo ergela, leloa, kokoloa	Ez ni ukitu, memelo alaena!	83
miazkatu milikatu, zupatu	Begi urdin haiek, berari tinko begira, begiradarekin aurpegia miazkatuz bezala, hain eztiro, hain eztiro...	19
mikaztu mingostu	Igorri ahoko listuaren ezti mikaztu egin zitzaion.	16
modu basatian bortizki, fineziarik gabe	Eta iman baten antzera tiratzen zion gorputz hura modu basatian bereganatzeko gogoia piztu zitzaion.	83
mukizu umegorri	Nano mukizua!	50
muzin keinu muturka jarri, protesta imintzinoa	Muzin keinu bat egin zion arrebak, eta ezer esan gabe igo zen etxera.	15
nahaspil nahastea, pilaketa	Igande gauean, berebiziko nahaspila gertatu zen.	87
nano txikitxo	Hago pixka batean, nanoa , oraindik ez diat amaitu.	53
nardagarri nazkagarria, higuigarria	Igor ziztuan jaitsi zen aldapa beheara, motoaren klik nardagarri hura entzunez.	96
oihartzun durundia, soinu errepikatua	...mutil atsegina zara, sorbaldako arnas oihartzuna ...	41
orro marrua, makakorroa	Atera zuen berebiziko orroa , denek ondo entzun zezaten.	31
ortzi zerua	Ortzi urdin-urdin zegoen.	42
paraje lekua, ingurua	Zer arraio egiten zuen neska hark paraje hartan?	41
perlesiak jota paralisiarekin, sorgor	Igor perlesiak jota bezala zegoen.	62
peto-peto adi-adi	Txaletaren parean, neskak Igorren aurrean jarraitzen zuen, peto-peto begira.	19
petril bide bazterreko hesitxo, babesa	...arratoia eta Irene zulotik irten, eta Fu Mantxuko petril batean eseri ziren	60
piko aldapatsua, maldatsua	Kaskoa estutu, motoa martxan jarri, azeleratu eta aldapa pikoan gora abiatu zen Igor.	5
pinpirin ploit-polita (<i>chulo</i>)	Tripazorrrak eta biek desmuntatu, motorraren potentzia trukatu, pieza berriak sartu, margotu, eta berria baino pinpirinago utzi zuten zaldi mekanikoa.	11
potroak eduki ausarta izan	Hik potroak dauzkak , ostia. Bion artean zerbait handia egin behar diagu.	80
potroestu madarikatua (<i>cabronazo</i>)	Harrapatzen badut moto lapurtu didan potroestua ...	6
purrustada erretolika, bronka	Berebiziko purrustada hasi zuen Marinak; ; zeuzkaten arazoekin ez ote zuten nahikoa, alproja hutsa bihurtu nahi al zuen.	55
sastatu ziztatu, zulatu	Hobe dik. Jo eta sastatu egingo diat.	70
sen instintoa	Lasterka etorri zitzaion, eta musu eman zion ezpainetan. Igorrek bere buruaren sena galdu zuen une batez. Irenek askatu zuenean, nahasturik sentitu zen.	58
sos dirua, txanpona	Apaletan zeukaten ontzi batetik sos batzuk hartzera.	64
taxuzko ganorazkoa, burutsua	Igorri, halakoetan, asto-arrantza moduko bat irteten zitzaion eztarritik, ezer taxuzkorik esateko ezgauza.	17



toponimo leku izena	Gainera, Igor, bere isilean, ezagun samarra zen halere, berak asmatutako toponimo xelebreak institutu guztian zabalduak baitziren.	18
trikimailu engainua, azpikeria	...diruarena arrebaren trikimailu bat zen errudun sentiarazteko.	56
Tripazorro <i>Sabel-haundi, Potolo</i>	Etxera iristeko gutxi falta zitzaionean konturatu zen ez zeramala Tripazorro atzean.	23
ttiki-ttaka larrua jo, txortan egin	Hik eta biok ttiki-ttaka egin behar dinagu, aizan. Edo, bestela, Txinori esango zionat umemoko honekin zertan habilen.	70
tu egin listua bota	Txinok besotik heldu zion. Irenek garrasi bat atera, eta tu egin zion.	71
txatartegi burdin materialen hondakindegia	Aseguruak ez zion askorik emango Igorri, txatartegitik ateratako motoa izanik.	98
tximistak jota ziztuan, ahalean, arin ere arin	Marina, tximistak jota bezala, negarrez irten zen gelatik.	10
txinparta pindarra, txispa	Begi gaztaina-kolorekoak zituen, eta diz-diz egiten zuten, txinpartatxoak botaz bezala.	12
txita oilo kumea	...bakoitza alde batean, txitak oilo amaren hegoen azpian bezala.	75
txoro leloa	Segituan zorabiatu zen mutila, eta irri txoro bat jarri zitzaion.	81
ubeldu odol beltzunea, moratoia	Eguerdian, komunera jaiki zen, baina berriro ohera itzuli zen. Gorputza mindurik zeukan, ubelduz josia.	86
ukabilkada esku itxiarekin jo	Horrek edozein zigorrek baino min handiagoa ematen zion, ukabilkada batek baino handiagoa.	41
umemoko gaztetxo, heldugabea	Hik eta biok ttiki-ttaka egin behar dinagu, aizan. Edo, bestela, Txinori esango zionat umemoko honekin zertan habilen.	70
urpekari urpean aritzen dena, must egiten	Urpekari ibiltzen zen, gora eta beheara, gora eta beheara.	6
uzkur □ burumakurra, mesfidatia	Baina, izaera uzkurra zela eta, ez zuen harremanik sendotzen. Gelakoekin ibiltzen zen, eta izaki bixitzat onartzen zuten taldean...	29
xixta egin (<i>rajar</i>)	Irenek labana atera zuen poltsatik, eta lepoan jarri zion: — Xixta egitea nahi, mukizu?	83
xume apala, arrunta	Hitz labur batek baino ez zuen piztu hondamendia: ez hitz xumeak .	35
xurgagailu aspiragailua	Xurgagailua pasatu gelan, hozkailutik gazta, tomatea eta jogurt bat atera, kakahuete batzuk hartu, eta egongelan eseri zen, telebista aurrean.	77
xuxurlaka ahapeka mintzatuz, murmurikatu	Igor ondoan eseri zitzaion, eta erdi- xuxurlaka esan zion: — Arazotan sartu haiz.	90
zabar trakets, modu dorpean	Ontziak zabar garbitu zituen, ohi ez zuen bezala.	64
zakar gogor	Marinak atea zakar itxi zuen, bere lanekin jarraitzeko.	24
zanga-zanga aho beteka, trago handiak eginez	...sorosleak atera behar izan zuen, historiko, zer egiten zuen ez zekiela, igerileku erdia zanga-zanga irentsita...	38
zanpatu gogor zapaldu	Eguerdia aldera, arreba heldu zen; zorua zanpatzeko moduagatik zekien bera zela.	54
zaputz muturtua, muzindua	Jarrera zaputza zuen, eta inork ez du nahi zaputzik lagunartean.	22
zerutiar ainguruak bezalakoa	Neskaren aurpegia zerutiarra zen, begirada garbi garbikoa, eta ezin zuen kendu bekokiko ispilutik.	78



zipaio ertzaina, polizia	Tripazorrok ez zuen ezer jakin nahi " zipaioekin " eta Marina eta Igor joan ziren komisariara.	97
ziplo brausta, kolpean	Gelara sartu, leioa itxi, eta arropa kentzeko kemenik gabe etzan zen ohe gainean, ziplo . □	27
zipriztin txipliztada	...ezin zituen eraman aitak ispiluan uzten zituen hortzetako pastaren eta bizarra egiteko xaboiaren zipriztinak .	55
zirimolatsu nahasi eta inkanbilatsua	Esaten zioten lagunek, etxekoek, denek, ez ibiltzeko hala, bat baino gehiago itoa zela putzu zirimolatsu haietan...	6
zirri ukitu lizuna	Ireneri zirriak eragiten zizkion, batik bat ipurdiko erretenean.	47
zozomikote pepelo, txepela	Igorrek lanak izaten zituen zozomikote baten pare, lerdea zeriola, ez geratzeko begira-begira.	38
zurda tendoia	Ebakuntza egin behar izan zioten, eta zurdaren bat ez zitzaion ondo lotu besoan.	7